

Irlandako Sean Leen irakasleak Mondragon Unibertsitatea bisitatu du

2011/07/15

Joan den uztailaren 11n, Sean Leen, Irlandako College of Engineering and Informatics National Universityko irakaslea, Mondragon Unibertsitatean izan zen bisitan, bi unibertsitateen arteko lankidetzak indartzeko helburuarekin, aluminio eta titanio aleazioen konformazio superplastikoaren prozesuen azterketari dagokionez.

Irakaslearen egonaldian, Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileek Garaiako Laborategietan (Arrasate) dagoen Superplastikoaren konformazioa egiteko labe berrian entsegu esperimentalak egiteko aprobetxatu zuten. Gainera, Sean Leenek bi hitzaldi eman zituen honako gai hauen inguruan:

- Temperatura handiko lanerako tresneria metalikoen bizitza Konformazio Superplastikoan
- Konformazio Superplastikoaren bidez eraldatutako titanio txapen akatsaren iragarpena

Bisita hau bi unibertsitateek aeronautika, automobilgintza eta biomedikuntzako osagaien konformazio Superplastikoaren arloan proiektuak garatzeko duten interesetik eta Nagore Otegi Irlandako Unibertsitatean egindako 6 hilabeteko egonaldiaren ondorioz sortu zen.



Sean Leen-en bisita